Kontu administratiboetan eta hasierako erabakietan Olatukoop sareko kideak eta Erkidek asko lagundu digute. Martxan jarri ondoren ere, gure proiektuak aurrera egin badu jende askok gure lanak zabaldu dituelako da; eta batez ere, bidelagun onak izan eta egin ditugulako.

Zein inbertsio egin behar izan dituzue?

Gure inbertsio nagusia ideiak eta denbora izan dira. Oinarritzkoena gure gaitasunak eta ideiak zirenez, ia ezer gabe abiatu ginen. Pixkanaka hobeto lan egiteko tresnak erosi ditugu hala ere: ordenagailuak, kamerak, mikrofonoak...

Zein da zuen bereizgarri nagusia?

Komunikazio zerbitzuak eta ikus-entzunezko ekoizpen propioak uztartzen ditugu. Baina gure proiektua hori baino gehiago ere bada. Gustu eta interes antzekoak ditugun lau lagun bizi bidea da, gure burutazio edo proiektu pertsonalagoak ere garatzeko aukera ematen diguna. Euskal komunitateari begira eta euskal komunitatetik egiten dugu lan; gure xumetik,



Hiru Damatxo Ideia Faktoria, Koop. Elk.eko bazkideak.

inguruan eragiteko bokazioarekin. Hori da, ziur asko, gure bereizgarri nagusia.

Lau kideak gazteak zarete oso. Kooperatibismoak etorkizuna itxaropentsuago bihur al dezake?

Inguruko gazteen artean prekaritatea eta frustrazioa oso zabalduta daude. Egia da beste batzuen zain eta haien beharretara moldatzen aritu beharrean, proiektu propioa martxan jartzea aukera bat izan daitekeela. Baina ez gatoz bat ekintzailatza idealizatzen dutenekin. Taldean, eta komunitate baten babesarekin jorratzen bada, bide hori emankorra izan daiteke, baina bestela ez.

Nola baloratzen duzue orainarteko ibilbidea?

Urtebete pasata balorazioa oso ona da. Burukomin eta kontraesanak baditugu eta diruz larri ibiltzea ere tokatu zaigu. Baina hala ere, lan ordu flexibleari eta konfiantzazko harremanari esker gure bizi kalitatea asko hobetu da. Gustuko proiektuetan aritzeko aukera izan dugunez, gure satisfakzio maila ere bai.

Eta zebakiei begira?

Ez genuen uste urtebete eskasean lau soldata ordaintzeko moduan egongo ginenik, eta epe ertainean mantendu ahal izango dugula dirudi. Gainera jende interesgarri eta jator asko ezagutu dugu urtebetean, eta haietako askorekin lan egiteko aukera izan dugu. 

“Las universidades podemos y debemos involucrarnos en acercar la naturaleza y beneficios del cooperativismo”

Ficha personal:

- | Marta Enciso Santocildes.
- | Doctora en Derecho, profesora agregada en la Facultad de Derecho de la Universidad de Deusto.
- | Vicedecana de la Facultad de Derecho. Universidad de Deusto.
- | Miembro del Instituto de Estudios Cooperativos de la Universidad de Deusto.
- | Vocal del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi (CSCE), por la Universidad de Deusto.

Marta Enciso Santocildes

Vicedecana Facultad de Derecho. Universidad de Deusto. Vocal del CSCE.

Entrevistamos a Marta Enciso Santocildes, doctora en Derecho y miembro del Instituto de Estudios Cooperativos de la Universidad de Deusto. La globalización, la crisis, la formación de los estudiantes, el futuro o la importancia de informar sobre el cooperativismo, son algunos de los temas que se ponen sobre la mesa en esta entrevista, en la que Marta Enciso también profundiza en aspectos como el tejido empresarial o la democratización de la economía.

La globalización, ¿está afectando favorablemente a las personas trabajadoras?

Como todos los fenómenos que afectan a las personas suelen ser asuntos complejos, con diversas aristas. La globalización es imparable y ya está bastante asentada. La previsión de futuro nos indica que seguirá profundizándose. Constituye un reto ineludible para las empresas, por supuesto también para las Cooperativas, para los trabajadores ya consolidados y para la juventud, que o bien está entrando en el mercado de trabajo o preparándose para ello. No se trata de un fenómeno nuevo, sino que en los últimos años, por la tecnología y la capacidad de interconexión existente, ha crecido exponencialmente.

Este fenómeno afecta a diferentes aspectos: sociales, culturales, empresariales y de mercado, políticos y, por supuesto, también a los trabajadores. Estos deben adaptarse a las necesidades de un mercado globalizado e interconectado. Las competencias idiomáticas, de interculturalidad, junto con las tecnológicas, resultan esenciales.

A su juicio, ¿qué lecciones caben extraerse de la crisis económica?

Una de las ideas que más se han repetido con motivo de esta última crisis es que son cíclicas, e incluso se han llevado a cabo análisis comparativos con otras anteriores, sobre todo con la de 1929. En un primer momento quizás se intentó con estos comentarios restar importancia a lo que estaba sucediendo. La realidad nos ha mostrado lo equivocados que estaban estos enfoques, pues los efectos económicos y sociales han sido demoledores. Los datos de desempleo han alcanzado cotas altísimas, con colectivos como los jóvenes, especialmente afectados. Hogares en los que todos los miembros están sin trabajo y niveles de pobreza y desigualdad inaceptables en nuestra sociedad...

Estos datos no deben dejarnos indiferentes ni restar importancia a la crisis. Más bien al contrario: lo que nos deben hacer es obligarnos a pensar y reflexionar a todos sobre la crisis y sus consecuencias, cómo paliar éstas con carácter urgente e inmediato y cómo promover cambios a medio plazo.

¿Y cuáles son las claves para salir?

Se ha constatado que, junto con la causa más inmediata del estallido (la crisis financiera de 2008), hay otras causas de carácter más sistémico y estructural sobre las que hay que incidir. La clave es el modelo económico y de empresa en sí mismo y el que debe evolucionar y plantearnos un modelo de crecimiento que yo llamo "adjetivado". Es decir: no sirve ya hablar de crecimiento,

solo, sino que hay que caracterizarlo, adjetivarlo. El crecimiento debe ser sostenible y cohesionador. Aquí el cooperativismo tiene mucho que aportar pues, por su propio ADN, persigue este tipo de crecimiento, así como el mantenimiento del empleo, el largo plazo frente al corto y valores sólidos esenciales para una economía más sana.

De hecho, la Unión Europea llevó a cabo esta reflexión y de ella nació la estrategia Europa 2020, que se marca cinco hitos para el 2020 relativos a empleo, investigación y desarrollo, energía, estudios en los jóvenes, y reducción de la pobreza. Al servicio de estos cinco elementos debe estar la economía y las políticas que se lleven a cabo.

Resulta también muy significativo que las dos primeras acciones que llevó a cabo fueran relativas a responsabilidad social y a empresas sociales. El cambio de enfoque, con todas las limitaciones que puedan plantearse, es sustancial.

El futuro de los jóvenes

¿Nota preocupación por su futuro laboral en los jóvenes universitarios?

Claro que hay preocupación por el futuro laboral por parte de los jóvenes universitarios. Entran en las universidades con una vocación y unos objetivos. Los estudios que eligen les permiten llevarlos a cabo y desarrollarlos posteriormente en el mercado laboral. Es un sentimiento que hemos tenido todos cuando nos hemos encontrado en la misma fase y, lógicamente, se sigue manteniendo.

Es cierto que, en un momento como éste, de persistencia de la crisis económica, se acrecienta la preocupación. La Universidad les ayuda a transitar hacia ese objetivo profesional, además de con una formación sólida, con acciones que mejoran su potencial laboral: complementos formativos, prácticas, desarrollo de competencias y habilidades, tutorización y orientación laboral, entre otras. Yo veo en los estudiantes a personas preparadas, muy completas, luchadoras, con valores sólidos.... Son nuestro futuro y me da la sensación de que está en buenas manos.

La alternativa del emprendimiento empresarial, ¿tiene fuerza entre los estudiantes?

Yo creo que quizá no es la primera opción entre muchos estudiantes, pero depende de las personas y sus inquietudes y también de las titulaciones. Por ejemplo, en Derecho, una de las opciones es fundar su propio despacho y, aunque muchas veces no se considera como tal, no deja de ser un caso

de emprendimiento empresarial. También es cierto que los estudiantes van viendo y conociendo opciones y posibilidades a lo largo de su etapa universitaria y suelen cambiar de opinión sobre la opción del emprendimiento.

“El cooperativismo tiene mucho que aportar ya que, por su propio ADN, persigue el mantenimiento del empleo, el largo plazo frente al corto y valores sólidos esenciales para una economía más sana”

¿En la universidad se promueve el emprendimiento?

Se intenta promover dando difusión a este mecanismo, compartiendo buenas prácticas y experiencias de jóvenes emprendedores, así como las técnicas y conocimientos necesarios. Por ejemplo, en Deusto se llevan a cabo acciones como la semana Deusto Emprende, con talleres y conferencias. Hay asimismo un centro para el emprendimiento con cursos específicos, acompañamiento y una incubadora. Es destacable que en estos programas se presenta el cooperativismo como una opción para el emprendimiento y algunos de nuestros ex alumnos optan por esta modalidad.

En las clases, también según las materias, se trabaja el tema del emprendimiento con acciones concretas dentro de los diferentes programas de las asignaturas. En el ámbito de investigación también es una línea de trabajo para los diferentes equipos e investigadores, según las temáticas que cada uno desarrolle. En el caso de mi equipo (EDISPE) por ejemplo, sí constituye un foco importante, bastante centrado en emprendimiento social y cooperativo.

Cooperativismo y Universidad

El cooperativismo ¿es un modelo conocido y propagado en la Universidad?

Recuerdo cuando empecé a trabajar en la Universidad de Deusto al Padre Dionisio Aranzadi S.J. que nos decía que no se puede amar algo que no se conoce y que, por tanto, constituía una labor prioritaria mostrar el cooperativismo entre los estudiantes. Consideraba que el compromiso con el cooperativismo no sólo significaba quedarnos en un nivel científico e investigador con nuestras tesis, artículos y presencias en congresos... A todos sus discípulos se nos han quedado muy grabadas estas palabras y lo llevamos a cabo como parte de nuestra tarea universitaria para continuar con su legado científico y humano.

La Alianza Cooperativa Internacional en su quinto principio cooperativo, denominado Educación, Formación e Información, junto a la formación interna de sus miembros y dirigentes electos, recoge la necesidad de informar al público en general y de manera particular a jóvenes y creadores de opinión, acerca de la naturaleza y beneficios del cooperativismo. La universidades que tenemos el cooperativismo como uno de nuestros temas de referencia, podemos y debemos involucrarnos en esta tarea de formación respecto de los jóvenes.

¿Qué podría hacerse para una mayor promoción del cooperativismo en el ámbito universitario?

Yo creo que continuar y profundizar en cuestiones que ya se están llevando a cabo. Por un lado, cursos y sesiones formativas especializadas en cooperativismo. Aquí las opciones son inmensas, pueden ser más tipo seminarios, muy prácticos, con invitados externos, analizando casos reales (los tenemos muy relevantes y muy cercanos). Al no estar ceñido a una asignatura concreta de un grado suele ser muy positiva la multidisciplinariedad tanto en asistentes como en el enfoque. Los Institutos universitarios especializados juegan un papel esencial. También es muy importante incluir el cooperativismo en el marco de los diferentes grados, no sólo en programas adicionales, ya que se trata de una realidad que coexiste con otros actores en el mercado y se puede hacer referencia al cooperativismo, a sus especificidades en gestión, contabilidad, fiscalidad, en el ámbito del derecho en general, societario, laboral... Se pueden poner ejemplos de Cooperativas para analizar en las clases...

Además, los estudiantes hacen prácticas, visitan empresas o tienen contactos con gestores y directivos, que también pueden ser en entidades Cooperativas. Otro elemento magnífico para este propósito es el Trabajo Fin de Grado que todos los estudiantes deben realizar y, según en qué carreras, es especialmente favorable para incluirlo como tema a desarrollar. Está también en manos del profesorado identificarnos como expertos en cooperativismo, como una especialidad en el ámbito científico y poco a poco darlo a conocer también entre el alumnado.

“Existen niveles de pobreza y desigualdad inaceptables en nuestra sociedad”

¿Existe una conexión suficiente entre la Universidad y el tejido empresarial?

Considero que es una cuestión muy relevante y de sumo interés para ambas partes, tanto para empresas como para la Universidad. De hecho, la semana pasada celebrábamos el 130 aniversario de la Facultad de Derecho y fue uno de los ejes en el que incidimos y agradecemos sinceramente. La participación de las empresas y sus miembros en diferentes acciones formativas, el tiempo y entusiasmo compartido por la formación y el avance social y económico. Se trata de un proceso que debe seguir profundizándose.

¿Evoluciona la economía hacia una mayor democratización?

Me gustaría poder responder afirmativamente, creo que se está en el buen camino, pero queda todavía por recorrer. Todos los movimientos y avances que se están haciendo para promover la participación financiera de los trabajadores en el capital y en los beneficios implica un avance en la democratización de la economía. El País Vasco puede decirse que es uno de los territorios donde se está profundizando más en materia de participación de las personas en la empresa.

Encontramos experiencias muy relevantes fuera del cooperativismo y las sociedades laborales, de donde puede provenir la inspiración. De hecho, existe un foro especializado, Pasuen Foroa, donde precisamente tienen cabida todos los actores que trabajamos en esta área para colaborar en el fin común de promover que empresas de capital proporcionen a sus trabajadores la posibilidad de participar financieramente. 

GESTIONAMOS EMPRESAS...

- ... DESDE DENTRO DE LA EMPRESA
- ... CONSTRUYENDO EL FUTURO
- ... HACIENDO EMERGER LO MEJOR DE CADA COLECTIVO
- ... PROCURANDO EL EQUILIBRIO ECONÓMICO-FINANCIERO



KUDEAKETA
ULERTZEKO
BESTELAKO
MODU BAT

BIZIKIRO:
ADREZ, MODU
INDARTSU, PIZDARRI,
GOGOTSU BATEAN,
SUSTATUZ, SUSPERTUZ,
BULTZATUZ, AZKARTUZ,
KEMENTSU ETA IRRIKAZ,
MODU SUHAR ETA
GRINATSUAN.

HALA BIZI
DUGU ZUEN
ENPRESEN
KUDEAKETA



A+G CONSULTORES DE GESTIÓN S. COOP. | TEL. 945 46 54 69 | AMASG@AMASG.COM | WWW.AMASG.COM

CSCE EKGK Servicio Vasco de Arbitraje Cooperativo Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzua



Edozein
gatazkaren aurrean,
gurekin konektatu

Ante cualquier conflicto,
te echamos un cable

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUKO SERBITZU BAT
UN SERVICIO DEL CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS DE EUSKADI

Zer da Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzua?

Euskal kooperatibetan gatazkak konpontzeko zentsuak proceduraren administratzaile arduratzen den erakundea da. **Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzua** arduratuko da kooperatiben artean sortzen diren auzietan, edo kooperatiben artean sortzen diren auzietan, edo kooperatiben -edo beren organo sozialen- eta haiekileen artean, edota kooperatiben barnean organo sozialen artean edo haiekileen artean sortutakoak.

¿Qué es el Servicio Vasco de Arbitraje Cooperativo?

Es el encargado de la administración de los diferentes procedimientos de resolución de conflictos en las cooperativas vascas. Conoce las cuestiones litigiosas que se suscitan entre las cooperativas, entre estas -o sus diferentes órganos sociales- y sus socios, o en el seno de las mismas entre sus diferentes órganos sociales o entre los socios.

ERAGINGARIA DA • FUNCIONA

Tfno.: 945 121 155

e-mail: info@csce-ekgk.coop

FIGURE ARTEAN

Teodoro Zuloaga, Lur Alkartasuna, S. Coop.

“Garai bateko kooperatiba izan zena mantendu nahi dugu, zerbitzu duin bat eskaini eta herri txikiek merezi dugun genero eta erosteko aukera izan nahi dugu”

‘Alkartasuna’ izenburupean sortu zen 1922ko maiatzaren 18an eta guda zibilean ‘Cooperativa Católica del Campo’ izenarekin bizirautea lortu zuen. Gaur, Lur Alkartasuna Kooperatibak ez ditu albo batera utzi garai ilun hartako helburuak: herritarrei beharrezko elikagaiak eta era guztietako tresneria eskaintzea. Teodoro Zuloagak, egungo arduradunak, gertutik ezagutzen du Aiako kontsumo-kooperatiba honen ibilbidea eta, bere esperientziaz abiatuz, taldearen etorkizun zein erronkak azaldu dizkigu, besteak beste.

Mende bat igaro da ia Lur Alkartasuna Kooperatiba sortu zenetik...

Ehun urte, bai. Ezin dugu ahaztu sortzaile izan zen Gabino Alustiza. Herriko alkatea izan zen, abertzalea, eta herriaren alde lan egin izanagatik fusilatu zuten. Ea orain denon artean beste ehun urterako bizitza ematen diogun kooperatibari, ezinbestekoa zaigun zerbitzu hau mantendu eta hobetu ahal izateko.

Zenbat bazkide zarete gaur?

226 bazkide ditugu. Kontuan izanda Aiakoko herriak 2000 biztanle dituela, baserri ugari eta hainbat auzo sakabanatuak, bazkide kopuru ederra dugula iruditzen zaigu. Hala ere, oraindik bazkide gehiago izateko atak irekita ditugu, herri proiektu hau iraungarri eta eroso izan dadin.

Zein da Lur Alkartasunaren ezaugarri bereizgarria?

Herri helburua. Alegia, ez dugu irabaziekin inor aberastu nahi. Herri onurarako zerbitzu bezala izendatzeko pausoak ematen ari gara. Bazkideak herritarrak gara, langileak herritarrak dira eta bi urtetik behin izendatzen den kooperatibako batzorde zuzendariak borondatez egiten du lan, muxu-truk. Herriko produktuei aukera bat eman nahi diegu eta, horretarako, bertako ekoizleak nahi ditugu. Garai bateko kooperatiba izan zena mantendu nahi dugu, zerbitzu duin bat eskaini eta herri txikiek merezi dugun genero eta erosteko aukera izan nahi dugu.

Zein abantaila eskaintzen ditu kooperatiba ereduak beste ereduakiko?

Alde batetik proiektu baten parte izateko aukera eskaintzen du. Eta, bestetik, kooperatiba ereduan ez bada, nork eraikiko luke Aia bezalako herri txiki hauetan guk daukagun bezalako denda bat, aukera zabal eta modu onekoa? Nork eraikiko luke gasolindegia edo ferreterei bat? Nork emango luke aukera edonork behar duen zerbitzu eskatu eta berehala eskura izateko?

Nola ikusten duzu kooperatibismoaren etorkizuna orokorrean? Eta kontsumo kooperatibismoarena?



Lur Alkartasuna, S. Coop.

Etorkizuna iluna bada ere, kooperatibismoa beharrezkoa, ezinbestekoa, da. Gaur egun daramagun bizimodu honek geroz eta gehiago bultzatzen gaitu bakarkako bizitzara, individualismora. Dena eskura daukagu interneten bidez, merke eta eskaintza zabal batekin gainera. Horrekin bizitzen ikasi eta jakin behar dugu, baina beste aukera batzuk ere aurrera eraman behar ditugu, erosketak kontrolatu bat bultzatuz, bertako ekoizleen balorea mahai gainen jarriz eta lan aukerak sortuz.

Zein erronka planteatzen zaizkio kooperatibismoari?

Beste eredu batzuen aurrean konpetitibo izan behar dugu, erotu gabe eta ekoizten dugun generoa prezio duin batean eskainiz. Ezin dugu ahaztu ekoizleek ere bere lana behar den bezala ordaintzea merezi dutela eta hori ezinbestekoa dela.

2015ean, Kontsumo Kooperatibak Erkiden integratu ziren. Nola baloratzen duzu integrazio hori?

Talde handi batean egoteak babes eskaintzen digu eta elkarlanera bultzatzen gaitu. Guretzat oso garrantzitsua da besteen berri izatea eta jakituria zein esperientzia zabalagoa duten beste kooperatiba batzuekin harremanetan egotea. Gainera, aholkularitza zabal eta zuzeneko eskaintzen dute. Beraz, Erkideren parte izatea oso aberasgarria izango da aurrerantzean Lur Alkartasunarentzat. 

Altzairu herdoilgaitzaren fabrikazioan liderra den Jindal Stainless Limited konpainiarekin duen enpresa-hitzarmena berri du beste bost urterako Fagor Industrialek

Fagor industrialek eta konpainia horrek nazioarteko hedapenaren alde hartutako konpromisoa sendoari esker, hazi egin da ONNERA Group taldea.

I ndiako metalurgiaren eta burdin eta altzairu herdoilgaitzaren fabrikazioaren sektorean, enpresarik garrantzitsuenetakoa da Jindal Stainless: puntako teknologia erabiltzen du eta, batez beste, 1,8 milioi tona ekoizten ditu urtean, eta bai 2000 milioi euro inguru fakturatu ere. Fagor Industrialek, ostalaritza, talde handientzako sukaldaritza eta garbitegiarako ekipamendu integralen fabrikazioan espezializatutako enpresak, hitzarmen garrantzitsu bat berri du gaur konpainia horrekin.

2008an abiarazitako eta beste bost urtetarako berritutako joint venture hitzarmen horri esker, ebaketa- eta leunketa-planta bat ireki zen Lucenan (Kordoba). Horrela, just in time hornidura bermatzen zaie Fagor Industrial S. Coop. enpresari eta euskal kooperatiba hori barne hartzen duen ONNERA Group taldeko gainerako enpresei. Lehenengo hitzarmen haren ondorioz, Iberjindal S.L. baterako elkarteak sortu zen. Orduetik, Europako merkatuan arrakastaz ezartzea lortu du eta, aurreikuspenen arabera, 2016an %40 haziko da haren fakturazio-bolumena aurreko urtearekin alderatuta.

Konpainia bientzat oso produktiboa izango den hitzarmen hori berritzearen garrantzia dela eta, Espainiara etorri dira Jindal



 Hitzarmenaren argazkia.

Stainless Group enpresako hainbat zuzendari. Horrela, kalitate, bikaintasun eta arrakastaren sinonimo den enpresen arteko elkartasuna sendotzeko asmoa dute. Eskaintzen dituzten produktu eta materialen sorta handiaren eta ikerkuntzaren bidez, operazio industrial eta prozesu berritzaileak gauzatzen dituzte enpresa biek eta, horri esker, gailendu egin dira nazioartean. 

OFRECEMOS ORIENTACIÓN Y ASESORAMIENTO **ESPECIALIZADO Y GRATUITO** EN LA CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS

CRECE CON FUERZA LA CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS EN EUSKADI

ELKAR-LAN APOYA LA CREACIÓN DE VUESTRA EMPRESA COOPERATIVA



KOOPERATIBAK SUSTATZENO ELKARTEA
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

KOOPERATIBEN ERAIKUNTZA GOGOZ ARI DA HAZTEN EUSKADIN

ELKAR-LANEK ZUEN KOOPERATIBA SORTZEN LAGUNDUKO DIZUE

SERVICIO GRATUITO - 94 470 37 60 - elkarian@elkarian.coop - www.elkarian.coop - DOAKO ZERBITZUA

KOOPERATIBEN ERAKETAN ORIENTABIDEA ETA AHOLKULARITZA **ESPEZIALIZATUA ETA DOAKOA** ESKAINTZEN DUGU

Elorrioko Txintxirri Ikastola, Koop. Elk.

“Ikastola ikastetxe hutsa baino gehiago dela ezin dugu ahaztu, horregatik gure ikasleen ongizatea bilatzen dugu arlo guztietan”

Txintxirri Ikastola 1968ean sortu zen, Elorrioko guraso kooperatiba baten ekimenez. Gaur, euskal hezkuntza ereduari jarraituz, bioeraikin bat egin dute, arkitektura pedagogiaren menpe jarritz, eta Ikastolan bertan sukaldatzeko aukeraz baliatzeko sukaldea eratu dute. Hurrengo apustua: bertako eta sasoiko produktuak apurka apurka sartzea. “Gurean inoiz ez dira proiektuak falta!”, aurreratu digu Zuriñe Zorrozuak zuzendariak.



“Nortasunaz hezi, arduraz hezi”. Edo, “Ze handia txikia izatea!” Aurreko biak urteetako leloak izan dira Elorrioko Txintxirri ikastolarentzat. Etengabeko hobekuntzan diharduen ikastola txikia da, erronkaz beteriko proiektua aurrera eraman duena eta etengabeko berrikuntzak eskuartean dituena. Baina, atzera bagira, Txintxirri badu bere historia ere. Izan ere, hurrengo ikasturtean, irakasle, guraso eta 239 ikasleek Txintxirri Ikastolaren 50. urteurrena ospatuko dute.

Elorrioko Ikastola 1968an sortu zen. “Herri euskalduna izanik ere, orduko guraso batzuk herrian euskararen desagertpenaren inguruan kezkatuak zeuden eta ikastola bat sortzea erabaki zuten”, ekarri du gogora Zuriñe Zorrozuak zuzendariak. “Lau urteko joan-etorrien ostean, 1972an Marianisten egoitza izandako Txintxirri jauregia eskuratu zuen Ikastolak eta behar ziren abal eta diruak jarrita, gaur eguneko egoitza erostea lortu zuen kooperatibak 1973an”.

Aro berri baten hasiera izan zen hura, ondorengo urte oparoen atea irekiko ziena. “Orain XXI. mendeko pertsonak hezteko erronka dugu eta sortzaileen hasierako printzipioei jarraituz hezkuntza proiektu berritzaile eta aurrerakoia dugu eskuartean”, eman du aditzera zuzendariak. Ikastola bizkaitarrak Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako lerroa jarraitzen du eta Durangoko Ibaizabaleko bazkide sortzaile den neurrian, ikasleek bertan jarraitu ohi dute ikas prozesua, bai

Batxilergoaren biderei ekiten badiote bai Lanbide Hezkuntza aukeratzen badute ere.

“Ikasleak dira hezkuntza proiektuaren ardatza eta ikas-irakas prozesuaren protagonista, beti ere, giro osasuntsu batean”, eman du aditzera Zorrozuak. “Zentzu honetan eta Euskal Herriko Ikastolen kideak garen neurrian gurea XXI. mendeko munduari zabalik dagoen euskal hezkuntza eredu da, ikastola eredu. Gure ikasleen irteera-profila zehaztuta, hau da, bigarren hezkuntza bukatuta izan behar dituzten ezagupen zein gaitasunak zehaztuta, integrazioaren pedagogiaren bitartez etapaz etapa gure proiektua garatzen dugu, egunez egun”.

Pedagogia Aktiboa

Txintxirri Ikastolak Pedagogia Aktiboa garatu du. “Umea da bere hezkuntza eta garapen prozesuaren protagonista eta gure irakasleen lana prozesu honetan bidelagun izatea da, hots, umeak jaiotzez dituen gaitasunak garatzen lagunduko dion testuingururik aberatsena eskaintzea. Mugimendu librea, autonomia, ikasleen arteko elkarrekintza, ikerkuntza eta esperimendazioa ahalbidetzen duen testuinguru seguru bat, alegia”, argitu du Zuriñe Zorrozuak. “Ezin dugu ahaztu umea esperimendatzeko ziur eta babestua sentitu behar dela, hau da, atxikimendu ziur bat behar duela”, azpimarratu du.



 Ikastetxearen jarduerak.

Ildo honetan, ebaluazioa ere Pedagogia Aktiboaren esanetara dago. “Ebaluazioa XXI. mendeko eskolen erronka da eta Ikastolak aurrera pausu esanguratsuak eman ditu azken urteetan. Ikaslea ebaluatetik testuingurua ebaluatzerara pasatu gara. Oraindik ere lanean jarraitu behar dugu baina emaitzak zein adituen iritziak bide egokia aukeratu dugula adierazten digute”, agertu du Zorrozuak. Ibilbide honen helmuga, hain zuzen ere, “ikasle kompetenteak” heztea da, horregatik Txintxirrik “kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren” alde egin du apustu.

Haurra bere ikaskuntza eta garapen prozesuaren protagonista bihurtzen dugu, azken urteetan lehen eta bigarren hezkuntzan EKI metodologian murgildu da Txintxirri Ikastola, eskuartean dituen helburuak lortzeko begira. “Metodologia honek oinarritzko kompetentzia orokorrak arlo guztietan txertatzen ditu”, argitu du arduradunak. “Gure ikasleak klasean bizitzaren egoera errealean aurrean jartzen ditugu eta egoera hauei irtenbidea emateko gelan landutako baliabideak integratu behar dituzte”, gehitu du.

Honez gain, Txintxirrik argi du gaurko haurrak natibo digitalak direla eta, ildo honetan, kompetentzia digitalak berebiziko garrantzia duela. Hori dela eta, bigarren hezkuntzako lehenengo mailatik aurrera ikasleak dispositibo digitalekin aritzen direla geletan zein etxean, hainbat irakasgaietan liburu digitala erabiliz. “Ikasle digitalek hiritar digitalera bidea egitea dugu helburu”, utzi du agerian Ikastolako zuzendariak.

Bioeraikina

“Ikastola ikastetxe hutsa baino gehiago dela ezin dugu ahaztu eta zentzu honetan gure ikasleen ongizatea bilatzen dugu arlo guztietan”, nabarmendu nahi du Zorrozuak. Honela, Txintxirrik, Ikastolaren pedagogian oinarrituta eta Haur Hezkuntzako irakasleen urteetako ikerkuntza eta formazio lanaren ondorioz, 2014ean 0-3 etaparako bioeraikina altxatu zuen. “Arkitektura pedagogiaren menpe jarri genuen, gure ikasleen ongizatearen mesedetan. Eraikinaz gain Pedagogia Aktiboaren beste bereizgarri bat ebaluazioa da, garapen-testuinguru ekologikoan oinarritutako ebaluazioa. Ebaluazio paradigma desberdin bat alegia”.

Bioeraikina ez da berrikuntza bakarra. Honekin hasitako ildo jarraituz, 16-17 ikasturtean ikastolan bertan sukaldatzeko aukeraz baliatzeko sukaldaria egin dute. “Hurrengo pausoa bertako eta sasoiko produktuak apurka apurka sartzea da gurasoekin partekatutako proiektu baten bitartez”, azaldu du ikasle buruak.

Ekintzailea da Txintxirri definizioz eta Ikastolaren etorkizuna planez beterik dago. “Hala nola, 0-6 etapa osoa jaso ahal izateko bioeraikinaren bigarren faseari ekitea, material naturalen erabilera etapa guztietan sartzea, gure bigarren hezkuntzaren eskaintza zabaltzea eta abar”, zehaztu du. “Gurean inoiz ez dira proiektuak falta!”, gaineratu du Zuriñe Zorrozuak. 

Erkideko irakaskuntza taldeak osoko bilkura egin du

ERKIDeko lehendakariak eta zuzendariak eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako zuzendariak hartu zuten parte.



ERKIDE

Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza, Kontsumo eta Kreditu Kooperatiben Federazioa
Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado, Enseñanza, Consumo y Crédito de Euskadi

ERKIDeko Irakaskuntza Taldekatze Sektorialak urteko osoko bilkura egin zuen joan zen urriaren 26an. Bilkurak arrakasta handia izan zuen, bai elkartutako kooperatiben parte-hartze nabarmenagatik, 47 kooperatiba federatutako 100 lagunetik gora bertaratu baitziren (errolaren % 58), bai bilkuran aurkeztutako txostenek lortu zuten balorazio onagatik.

Gainera, ERKIDeko lehendakariak eta zuzendariak eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako zuzendariak hartu zuten parte.

Osoko bilkuraren lehen zatian, 2016-2017 ikasturteko Jarduera Plana aurkeztu zuen ERKIDE-Irakaskuntzako koordinatzaile Patxi Olabarriak, eta onartu egin zen. Horrez gain, Taldekatze Sektorialaren Batzordeko kideak berri egin ziren.

Ondoren, joan den apirilean 60 kidek Kataluniara, zehazki Bartzelonara, egindako bidaiaren deskargua egin zen. Hango zenbait ikastetxetako esperientzia berritzaileak bertatik bertara ezagutzea izan zen bidaiaren helburua. Kooperatiba federatuetako kideek bisitatutako ikastetxeen berri eman zuten, haien ezaugarriak eta hezkuntza-esperientziak ezagutarazteko, eta bidaiaren ondorio nagusiak azaldu zituzten, zehazki honako alderdi hauen ingurukoak: ikaslearen protagonismoa, irakaslearen eginkizuna, zuzendaritza eta hezkuntza-lidergo partekatua, proiektu bidezko lana, elkarlaneko ikaskuntza, ebaluazioa ikaskuntzaren zerbitzuan, espazioaren antolakuntza berria, denboraren eta erritmo ezberdinen kudeaketa, egitura eta material berriak eta eskolaren lotura komunitatearekin.


Osoko bilkura amaitu zenean eta Bartzelonako esperientziaren deskarguari bukaera emateko, "Aldaketaren gakoak" izeneko txostena aurkeztu zuen Sadako eskolako zuzendari Jordi Musonsek, eta oso harrera ona izan zuen. Izan ere, bidaiari bisitatutako ikastetxeetatik inpakturik handiena eragin ziguna izan zen hura. Txosten horretan, ikastetxeak azken 10 urteetan izan duen eboluzioa ulertzeko gakoak ezagutarazi zituen Musonsek. Izan ere, Kataluniako hezkuntza-berrikuntzaren erreferentzietako bat bihurtu da ikastetxea. ☒



Sadako Eskola eta CESPE S.Koop.eko arduradunak.



ERKIDE Irakaskuntzako batzarrean.



**Geroa lantzen.
Kaixo Future!**

www.thinkuplks.eus



CONSULTORÍA
SISTEMAS DE GESTIÓN

- Premie
- EFQM
- Asesoramiento en Gestión

HERRAMIENTAS

- Innovación
- Plan estratégico
- Plan de Gestión Anual
- ISO 9001
- RSE
- Gestión por Procesos
- Gestión por Competencias
- Gestión por Liderazgo
- Gestión por Personas

HERRAMIENTAS MICRO

- Sistema retributivo
- Diagnóstico Necesid. y Plan de Formación
- Gestión rec. económicos
- ABC de Gestión de Costes
- SS
- Equipos de mejora
- Diagnósticos/estudios

OTROS

- Gestor documental EFQM (Sharepoint)
- Planes de viabilidad
- Diagnósticos/estudios

**SERVICIOS DE APOYO A LA GESTIÓN
BASADOS EN EL CONOCIMIENTO**

ASESORAMIENTO

- Contable
- Fiscal
- Laboral
- Normativo y Legal

FORMACIÓN

- En Gestión
- Jurídico Legal
- Asesoramiento

SERVICIOS JURÍDICOS-


- Juicios y arbitrajes
- Letrado Asesor
- Administrador Concursal

DISPONEMOS DE CONSULTORES
HOMOLOGADOS POR DIPUTACIÓN FORAL,
GOBIERNO VASCO Y SPRI

ERAGINKOR, S.Coop.
Ibarrekolanda, 13-15 bajo
48015 BILBAO

eraginkor@eraginkor.com
www.eraginkor.com

Tfno. 944 473 333
Fax. 944 472 901



UN CAMINO DE EXPERIENCIA SIN FRONTERAS

El reto de nuestras empresas es crecer y ser capaces de desarrollar las aptitudes necesarias para reinventarse cada día. Para ello, cuentan con el apoyo de Laboral Kutxa, la profesionalidad de sus personas y más de 50 años de experiencia en el ámbito empresarial. Contamos con una red de oficinas exclusivas y varias delegaciones repartidas por todo el mundo para que nuestras empresas crezcan con fuerza y sin fronteras.

Factoring y Confirming
Implantación Internacional de empresas
Comercio Internacional
Gestión de tesorería
Financiación Estructurada
Seguros de empresas
Leasing y Renting
9 delegaciones en todo el mundo



LABORAL
kutxa

EMPRESAS